

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1326

841/2026 EBAZPENA, martxoaren 4koa, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Durangoko Helduen Osasun Mentaleko Zentroko Osasun Mentaleko Unitateko burua izendatzen baita, aldi baterako eta lau urte luzagarritz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarean.

Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentearen urriaren 27ko 1052/2025 Ebazpenaren bidez, deialdi publikoa egin zen Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko Durangoko Helduen Osasun Mentaleko Zentroko Osasun Mentaleko Unitateko buru lanpostu bat hornitzeko lehiaketa-sistema-
ren bidez (2025eko azaroaren 27ko EHAA, 229. zk., eta 2025eko abenduaren 5eko BOE, 292. zk.).

Epaimahai kalifikatzaileak baloratu egin du aurkeztutako eskabidea, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Idoia Álvarez Altube andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da pertsona hori Durangoko Helduen Osasun Mentaleko Zentroko Osasun Mentaleko Unitateko buru izendatzea, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarean.

Beraz, bat etorritz Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunean, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan xedatutakoarekin,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Idoia Álvarez Altube Durangoko Helduen Osasun Mentaleko Zentroko Osasun Mentaleko Unitateko buru izendatzea, aldi baterako, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarean.

Bigarrena.– Izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikulua hiru garren arau komunean ezarritakoaren arabera, eta egun honetatik aurrera izango ditu ondorioak: 2026ko martxoaren 4a.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitzean utziko du lanpostua, baldin eta jazotzen ez bada luzapena egin ahal izateko baldintzaren bat eta, betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen aipatutako 28. artikulua ezarritakoarekin bat etorritz.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango dute kargutik izendatua, aldeztu aurretik kontrako espedientea baldin badago eta ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua 6. apartatua aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.– Interesdunari eta Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko Langileen Zuzendaritzari ebazpen honen berri ematea.

2026ko martxoaren 26a, osteguna

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbao, 2026ko martxoaren 4a.

Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentea,
ARATXU LOZANO OTERO.